

UDALAREN OSOKO BILKURA

2009ko martxoaren 26ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI jn.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko martxoaren hogeita seiko arratsaldeko zazpiak eta hogeit hamar minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2009ko OTSAILAREN 19ko ETA 2009ko OTSAILAREN 25eko OHIKO BILEREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bileren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zituen 2009ko otsailaren 19ko eta 2009ko otsailaren 25eko ohiko bileretako aktak.

2.- ALDAPABARRENAKO 20 ETA 24 ZENBAKIETAN DAUDEN ETXEBIZITZAK URIBE COSTA ELKARTEARI ETA AFIVES ELKARTEARI DOAN UZTEARI BURUZKO ESPEDIENTEA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko otsailaren 24ko 69 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2009ko otsailaren 17an hartu zuen 18. irizpenak honakoa dio:

Alkate jaunak 104/09 Dekretua eman du, eta honakoa dio, hitzez hitz:

“Udalerrian adimen-ezintasuna duten pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko dagoen etxebizitza eskasia eta udalak kasu horiei erantzuteko duen beharra dela eta, Udaltzarak ahalegina egin behar du irabazi-asmorik gabeko elkartearen esku erantzun egokia emateko etxebizitzak jartzeko, adimen-ezintasuna duten pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko.

Hori dela eta, sinatu duen alkateak, interes publikoa dela eta, Udaltzari proposatu nahi dio **Uribe Costa Elkarteari** honako etxebizitza hauek doan lagatzeko erabakia har dezala:

1. Leioako Aldapabarrena kalea, 20. ataria, 1. solairua, B etxebizitza.
148. garajea
57. trastelekua
2. Leioako Aldapabarrena kalea, 20. ataria, 1. solairua, A etxebizitza.
145. garajea
56. trastelekua

Era berean, **AFIVES Elkarteari** lagatzea proposatu nahi du, hauek ere gizarte-helburuak betetzeko:

3. Leioako Aldapabarrena kalea, 24. ataria, 1. solairua, D etxebizitza.
5. garajea
7. trastelekua

Ondasunek ondare-kalifikazioa dutela kontuan hartuta, 109, 110 eta 111. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, aipatutako etxebizitzak irabazi-asmorik gabeko eta erabilera publikoko elkartetzat aitortutako “URIBE COSTA” eta “AFIVES ” elkartei doan lagatzeko espedientea hasiko da.

Oinarria: espediente honetan jasotakoa aztertu da, eta Ondasunei buruzko Araudiko 109 eta 110. artikuluetan xedatutakoaren arabera,

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Doan lagako zaizkie URIBE COSTA ELKARTEARI eta AFIVES ELKARTEARI Aldapabarrena kaleko 20. atariko 1. solairuko A eta B etxebizitzak eta Aldapabarrena kaleko 24. atariko 1. solairuko B etxebizitza, hurrenez hurren; adimen-ezintasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

2. Lagapena 10 urteko epeaz egingo da, eta isilbidez luzatuko dela ulertuko da, alderdietako batek sei hilabete lehenago, gutxienez, salatu ezean. Hala ere, arrazoiren bat tarteko, etxebizitzak lagatzeko helburu izan den jarduera etenez gero, berehala bueltatuko dira Leioako Udalaren eskuetara, eta horrek erabakiko du zein erabilera eman horiei.

3. Alegazioak aurkezteko 20 eguneko epea ezarriko da, eta lagapen-erabakia BAOn argitaratuko da; alegaziorik egonez gero, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honetan aztertuko dira horiek.

4. Eskumena duen autonomia-erkidegoaren organoari jakinaraziko zaio, Ondasunei buruzko Araudiaren 109.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

5. Alkate jauna ahaldunduko da Leioako Udalaren izen eta ordezkaritzan lagapen-hitzarmena sina dezan.

6. Hurrengo osoko bilkurako gai-zerrendan URIBE COSTA ELKARTEARI eta AFIVES ELKARTEARI etxebizitzak lagatzeko onespenerari buruzko puntua sartuko da.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da, eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**; nahiz eta besterentzearen berri eman beharko zaion Bizkaiko Foru Aldundiari, Ondasunei buruzko Araudiaren 109.1. artikuluan xedatutakoari eta horrekin bat datorren Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a)7. artikuluari jarraiki.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** Aldapabarrena kaleko 20 eta 24 zenbakietako etxebizitzak Uribe Costa Elkarteari eta Afives Elkarteari doan lagatzeari buruzko espedientea onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazi bezala.

3.- LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN 4. ALDAKETA, ZERBITZUKO AZALERA HANDITZEAREN ONDORIOZ. Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko martxoaren 10eko 102 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena, hitzez hitz:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2009ko martxoaren 3an hartu zuen 19 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeburuak Udal Zerbitzu Teknikoen txostenaren berri eman du, udalaren lokalak garbitzeko kontratua luzatzeari buruzkoa. Luzapen hori Ibarlango eraikin berriak dakartzan beharrei erantzuteko da.

Zerbitzu teknikoek beren txostenean proposatu dute ELEXALDE ABEEren eskaintza onartu behar dela; zenbatekoa, 84.111,48 € (BEZa barne). Gainera, jakinarazi nahi da FCC enpresako langilea, egun arte garbiketa-zerbitzuak LHIn egin dituen, enpresa adjudikaziodunak subrogatuko duela.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- * Irizpena Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jartzea.
- * Urtean 84.111,48€-ko (BEZa barne) zenbatekoa esleitzea, dagokion partidaren kargura.
- * Kontratua aldatzea, adierazi diren zehaztasunak bilduta.
- * BAO-n beharrezko iragarkia argitaratzea.
- * Espedientea bidaltzea Kontuen Auzitegiari.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du.**

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du**, zerbitzuko azalera handitzearen ondorioz, lokalak garbitzeko kontratuaren 4. aldaketa onetsiko dela, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

4.- UDAL LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN 2009. URTEKO KANONA BERRIKUSTEA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko martxoaren 10eko 112 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena, hitzez hitz:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2009ko martxoaren 3an hartu zuen 26. irizpenak honakoa dio:

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006/04/11n hartutako 3. erabakiaren bidez, udal lokalak garbitzeko zerbitzua Urazkak eta Halsak osatzen duten ELEXALDE ABEEri adjudikatu zion. Zenbatekoa: 1.555.454,91 € gehi BEZa (17.887,02), hau da, 1.572.741,93 € (BEZa barne).

Oinarria: ELEXALDE ABEEk aurkeztutako idazkia. Horretan zerbitzuaren kontratuaren 2009. urteko kanona zerbitzugintzaren hasieratik (2007ko abendua) 2008ko abendura arte doan tarteko kontsumo-prezioen indizearekin berrikusteko eskatu zuten. Indize hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen du, eta Bizkaiko Lurralde Historikorako % 1,8 da.

Oinarria: kontratuaren 3. klausula; horren bidez adierazi da bi urtez ezarri dela, eta beste bi urtez luza daitezkeela (2010/06/19an amaituko da).

Oinarria: Adjudikatzeko lehiaketa eraendu zuten administrazio-baldintzen agiriaren 20. klausula. Horretan adierazten denez, urtero indarrean dagoen kontratuaren prezioa berrikusiko da Bizkaiko Lurralde Historikorako KPIk dena delako aldia baino lehenagoko 12 hilabeteetan eduki ahal dituen igoera edo jaitsierekin. Berrikuspenak egutegiko urteko bakoitzeko abenduaren 31n egingo dira. KPI hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen du.

2007/02/27an Tokiko Gobernu Batzarrean hartu zen Alkatzaren 148. Ebazpenaren bitartez, zerbitzua handitzea onetsi zen, Sakoneta kiroldegiko igerilekuko hondoa astean beste 3 egunetan garbitzeko. Zenbatekoa hileko 598,87 €-koa (BEZa barne) izan zen, eta gerora 2006an sinatutako kontratuan sartu zen.

Oinarria: Berrikuspena egin dute lehiaketa eraendu duen baldintza-agiriko 20. klausulan aurreikusita dagoenaren arabera. 2008ko eta 2009ko prezioen laburpena, % 1,8ko igoerarekin, hau da:

| UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK | 2008. URTEA | 2009. URTEA |
|---|---------------------|---------------------|
| SAN BARTOLOME HI | 6.412,93 □ | 6.528,36 □ |
| ARTAZA HI | 7.182,64 □ | 7.311,93 □ |
| LAMIAKO HI | 8.595,57 □ | 8.750,30 □ |
| TXOMIN ARESTI HI | 9.192,66 □ | 9.358,12 □ |
| MENDIBILE HI | 3.205,83 □ | 3.263,54 □ |
| UDALETXEA | 7.242,88 □ | 7.373,25 □ |
| BEHARGINTZA | 1.477,01 □ | 1.503,60 □ |
| LANGILERIA 180 | 571,11 □ | 581,39 □ |
| BULEGO TEKNIKOA | 2.458,26 □ | 2.502,51 □ |
| DENA PLANA (SAKONETA KIROLDEGIAREN ETXABEA) | 1.723,19 □ | 1.754,21 □ |
| SAKONETA KIROLDEGIA (Zabaltzea) | 27.172,01 □ | 27.661,11 □ |
| KANDELAZUBIETA KIROLDEGIA (Zabaltzea) | 4.218,23 □ | 4.294,16 □ |
| SARRIENAKO INSTALAZIOAK | 10.650,08 □ | 10.841,78 □ |
| ONDIZKO PROBALEKUA | 754,60 □ | 768,18 □ |
| KULTUR LEIOA | 17.834,66 □ | 18.155,69 □ |
| SAN BARTOLOME KULTUR ARETOA | 1.350,97 □ | 1.375,29 □ |
| LAMIAKO ANTZOKIA | 607,94 □ | 618,88 □ |
| TXORIERRI KULTUR ARETOA | 540,39 □ | 550,11 □ |
| ERREKALDEKO ERRETIRATUEN ETXEA | 5.200,58 □ | 5.294,19 □ |
| LAMIAKOKO ERRETIRATUEN ETXEA | 1.038,73 □ | 1.057,43 □ |
| PINUETA ADINEKOEN ETXEA | 2.872,54 □ | 2.924,25 □ |
| TXORIERRIKO ADINEKOEN ETXEA | 763,89 □ | 777,64 □ |
| ERREKALDE ERRETIRATUEN ETXEKO | 170,53 □ | 173,60 □ |
| TABERNAKO KRISTALAK | | |
| PINUETA ADINEKOEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK | 259,66 □ | 264,33 □ |
| LAMIAKO ERRETIRATUEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK | 333,10 □ | 339,10 □ |
| UDAL ALDAGELA ETA BILTEGIAK | 1.894,18 □ | 1.928,27 □ |
| AGIRITEGIA | 492,34 □ | 501,20 □ |
| ANDRAK | 984,68 □ | 1.002,40 □ |
| ERROTA ZAHARRA | 87,29 □ | 88,86 □ |
| GIZARTE ZERBITZUAK | 1.477,02 □ | 1.503,61 □ |
| IBARLAN ERAIKINA | | |
| Hasiera: 2009/01/20 | --- | 6.042,49 □ |
| GUZTIRA | 126.765,51 □ | 135.089,78 □ |
| BEZa (% 16) | 20.282,48 □ | 21.614,37 □ |
| GUZTIRA, BEZa barne | 147.047,99 € | 156.704,15 € |

Halaber, Soinu Atadia Fundazio Publikoa eta Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoen garbiketa zerbitzuaren prezioak berrikustea proposatu dute.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Udal lokalak garbitzeko zerbitzuaren kanonaren % 4,2ko igoera onestea 2009. urterako, irizpen honetan adierazitako prezioei jarraituz.

2. ABEEK proposatutako prezioen berrikuspenaren berri ematea erakunde autonomoei, erakunde horietako Zuzendaritza Batzarrek onets dezaten berrikuspena.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta Osoko Bilkuraren hurrengo bilerako gai zerrendan sartuko da. **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Udal lokalak garbitzeko zerbitzuaren 2009. urteko kanonaren berrikuspena onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2009-02-21etik 2009-03-20ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

6.- PRESAZKO MOZIOAK:

LEHENENGO MOZIOA:

2009ko EKITALDIRAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ORDUKAKO PREZIOA EGUNERATZEA ETA 2007ko ETA 2008ko EKITALDIETAKO ATZERAPENAK ORDAINTZEA: Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordearen 2009ko martxoaren 25eko 29 zenbakidun irizpenaren berri eman da. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

Udalari honetako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren adjudikazioduna den Lagunduz Taldeak bidalitako idazkiaren (sarrera-erregistroko zk.: 2.318) berri eman da; horren

bidez, 2007-2012 tarterako Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren sektorearen hitzarmen kolektiboa dela-eta, Leioako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kudeaketa-kontratuaren ekonomia eta finantzako oreka berrezartzeko eskatu dute. Izan ere, hitzarmen hori aplikatzearen ondorioz, beharrezkoa da 2007ko eta 2008ko ekitaldietako atzerapenak ordaintzea. Zenbatekoa, 83.482,32 euro: 39.861,25 euro, 2007. urtekoak eta 43.621,07 euro, 2008. urtekoak.

Era berean, 2009. urteko ordukako prezioa eguneratzeko eskatu dute, atzerako eragina urtarrilaren 1etik aurrera izango duela. Zenbatekoa: 24,52 euro.

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak honakoa egitea egokitzat jo du:

- 1- Eskatutako zenbatekoak ordaintzearen aldeko txostena ematea, Udal Zerbitzu Ekonomikoen txostena izan ondoren; PSE-PSOeko hiru ordezkariak eta PPko ordezkaria abstenitu egin dira.
- 2- 2009ko ekitaldirako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordukako prezioaren eguneraketaren aldeko txostena ematea. Zenbatekoa: 24,52 euro.
- 3- Lagunduz enpresak bidali duen idazkiaren kopia Batzorde honetako epaimahaikide den Pilar Grados García andreari bidaltzea.

PREMIAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Aldeko hogeitoto boto: EAJ-PNVko bederatzi zinegotzirenak, PSE-EEko sei zinegotzirenak, PPren hiru zinegotzirenak eta bi EB-Berdeak taldearenak, eta EAJ-PNVko Jon Loizaga Cayero zinegotzi jaunaren abstentzioa, bozketa egin aurretik joan baita. Horrenbestez, udalak gehiengoaren bidez **onartu du** aurkeztutako mozioaren premia. Jarraian eztabaidatu eta bozkatu egin da.

EZTABAIDA:

PSE-EEko Pilar Grados García andreak esandakoaren laburpena:

Gai hori aurreko eguneko Gizarte Ekintza Batzordean aztertu ez izanagatik bere taldearen harridura adierazi du, eta gehitu du funtsezko gaia dela eta, prezioaren eguneraketarekin bat datorrela, eta abstentzioa atzerapenen ordaintzetengatik izan dela, izan ere, ez dute izan gaiari buruzko informazio argirik.

Beste alde batetik, gaiaren izaera kontuan hartuta, Eledunen Batzarra dei zitekeela adierazi du, adostasuna lortzen saiatzeko. Berritoren ere esan du ez dakiela nola eta zer negoziatu den, eta daukan informazio urria geroago heldu zaiola.

Langileen eskubideak eztabaidatu barik, bere jarrera justifikatu du, aurretik ez baitu informaziorik izan.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

PSE-EEko zinegotziak eskasia eta azalpen falta dela-eta egindako kritikarekin bat datorrela esan du, baina aldeko botoa eman du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Isabel García García andreak esandakoaren laburpena:

Zerbitzuaren zenbatekoa dela-eta esan du gai hori, bere ustez, EUDELen eta udalari dagozkion zerbitzuen babesa izanik, ondo planteatuta egongo dela.

PSE-EE udal taldeak aipatutako gaiaren gaineko ezjakintasuna dela-eta, harrituta dagoela esan du; izan ere, alderdi horretako zerbitzu juridikoak gaia EUDELEkin batera lantzen ari direlako ustea baitu. Hori dela eta, gaiaren jakitun zirela uste izan du.

Gaia orain lantzeko beharra arrazoitu du, atzerapenak ahalik eta arinen ordaintzeko, eta udal askok Udalaren Osoko Bilkurara jo gabe egin dutela azaldu du.

Amaitzeko esan du ziur dela EUDELEN bidez, alderdi guztiek gai horren jakitun zirela.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) aipatu du, eta esan du hasiera batean, arazo ugari ekarri zituela eta irizpideak bateratzen saiatu zirela zerbitzua bera emateko, EUDELEN esparrua egokiena zelakoan, udal gehienetan eragiten baitu.

Adierazi du zerbitzua ematen duten enpresekin negoziazioak egitea zaila eta luzea izan dela eta, azkenean, hitzarmen kolektiboa sinatu dutela. Bertan, langileen oinarrizko eskakizunetako bat jaso da: joan-etorrietarako denbora laneko ordutegian sartu.

Aurrekoak alderdi guztiek onartutako gutxieneko ordukako prezioa eragin du, eta udal guztiei jakinaraztea baino ez da falta. Leioan kontuan hartu behar da langileak greban egon diren hilabeteetako zehaztasuna. Udalaren ekonomia-zerbitzuek gaia aztertu eta erabakiaren aurrean neurriak hartzeko modua antolatu dute; hori, oro har, kanpoko kabinete baten txosten juridikoak bermatzen du. Azkenik, udalaren zerbitzu juridikoek osoko bilkuraren eskumeneko gaia dela uste dutela adierazi du; hori dela eta, gaurko osoko bilkuran aurkeztu da.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: aldeko hamahiru boto, EAJ-PNVko bederatzi ordezkariak, PPko bi ordezkariak eta EB-Berdeak talde politikoko bi ordezkariak; zortzi abstentzio, PSE-EEko sei ordezkariak, EAJ-PNVko ordezkari batena (Jon Loizaga Cayero jn.) eta PPko ordezkari batena (Arturo Aldecoa Ruiz jn.), horiek biak bozketa egin aurretik joan izanagatik. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** 2009ko ekitaldirako onetsi egingo dela Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordukako prezioa eguneratzea eta 2007ko eta 2008ko ekitaldietako atzerapenak ordaintzea, Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gure taldeak zenbait galdera edo auzi edo kezka adierazi nahi ditu; izan ere, horietako zenbait bertora ekartzeko beharra ikusi dugu.

Lehenengo galdera:

Bere taldeak Batzar Nagusietan egindako galderetako baten berri eman du, eta Askartza inguruan armiarma-mota bat agertzean sortutako gizarte-alarma aipatu du. Horrela, bada, gaiaren gaineko informazioa emateko eskatu du.

Bigarren galdera:

Pinuetatik Gaztelueta ikastetxerako aldapan dagoen zirkulazio-arazoa aipatu du; aparkalekuaren arazoa konpontzeko neurriak hartu eta errepedea asfalta daitekeela adierazi du.

Hirugarren galdera:

Pasa den astearte gauean, antza denez, ETAko edo erakunde terroristaren inguruko preso bati ongi etorria egiteko ekitaldia egin zela adierazi du; goizaldeko ordu txikietan bolanderak bota ziren. Horrenbestez, gau horretan benetan zer gertatu zen jakin nahi duela esan du, bai eta Udaltzaingoak edo Ertzaintzak esku hartu ote zuten ere. Horrelakorik berriro gertatu ez dadila eskatu du.

Laugarren galdera:

Komunikabideen bidez Leioako puntakoa eta adierazgarria den enpresa baten egoera larria jakin duela esan du: Vicrila, hain zuzen ere. Izan ere, jarduera urte erdiz itxiko duela iragarri du. Egoerak hirurehun langile baino gehiagorengan izan dezake eragina; hori dela eta, osoko bilkurari bere kezka adierazi nahi izan dio, dela Leioako familiengatik, dela udalerriko ekonomia-jarduera den aldetik. Horrenbestez, udalak, ahal duen neurrian, laguntza emateko eskatu du, Vicrilaren egoeraren ondorioak leuntzeko.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Vicrilari dagokionez, ez dela udalerrian eragina izango duen enpresa-arloko lehenengo berria esan du; besteak beste ibilgailuen enpresa kontzesionarioak aipatu ditu. Era berean esan du enpresarekin harremanetan jarri beharko litzatekeela, egoerari konponbidea aurkitzeko beharrezko tresnen arloan laguntza emateko, eta prestakuntza- eta enplegu-politikak aipatu ditu, batik bat. Hala ere, krisiaren arazoaren larritasuna kontuan hartuta, Administrazio Orokorraren esku-hartzea gomendatu nahi duela esan du.

Xabier Gutierrez egindako ongi etorria dela eta, egokiena Udaltzaingoko buruak Barne Araubideko Batzordean azaltzea dela esan du, udal zerbitzu honek zeren berri zuen azal dezan. Halaber, berehala txertatutako pintadak kentzen saiatzen ari direla esan du.

Gaztelueterako sarbidea dela eta, Hirigintza Batzordean aztertu beharreko gaia dela esan du; gaia konpontzeko hainbat ekintza aipatu zituen.

Azkenik, armiarma-mota dela eta, Tellerian ikusi direla esan du, eta pertsonaren batek horietako baten lagina hartu zuela eta Aldundiaren mendeko diren zerbitzuetara bidali zuela, gaiaren gaineko informazioa eman zezaten. Hasiera batean, behintzat, badirudi animalia ez dela hain arriskutsua, itxura bortitza badu ere. Hala ere, antza denez iritzi kontraesankorrak daude eta, hori dela eta, hainbat proba egiten ari dira.

Eta iluntzeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,